



17 JAIALDIA
FESTIVAL
amateur



ANTZERKI TEATRO

Alegria-Dulantzi

2023



teatroamateur.com

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



Alegria-Dulantziko Udala
Ayuntamiento Alegria-Dulantzi

Noticias de Alava

Diario



17. ANTZERKI AMATEUR JAIALDIAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK ALEGRÍA-DULANTZI 2023

JAIALDIA

1. Jaialdia Alegria-Dulantziko Kultur Etxeko Txema Blasco Auditoriumean egingo da. Bertako langileak eta ekipamendu teknikoa jaialdiaren eskura egongo dira.
2. Edozein tokitako antzerki-talde ez profesionalek parte hartu ahal izango dute, eta beren antzezlanen edukia —familiei edo haurrei begirakoa barne—, estiloa eta hizkuntza ere edozein motatakoak izan ahalko dira. Talde bakoitzak, gehienez, 2 antzezlan aurkeztu ahal izango ditu.
3. Jaialdia **azaroaren 3tik 25era** egingo da, honela:
Jaialdia: 3tik 19ra, asteburuetan —ostirala, larunbata eta igandea—; haurrentzako lan bat barne.
Amaiera-ekitaldia eta sari-banaketa: 25ean, larunbatean.
Antzezipen guztiak eta amaiera-ekitaldia 19:30ean izango dira; umeentzako emanaldia, berriz, 18:00etan.
4. Telefono-zenbaki hauetara deituta, jaialdiaren eta parte-hartzeko oinarrien gaineko informazioa jaso ahal izango da:
Kultura Zerbitzua.-Telefono-zenbakia: 945 420 830, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.
Kultur Etxea.- Telefono zenbakia: 945 420 704 astelehenetik ostiralera 16:00etatik 21:00etara.
Horrez gain, www.teatroamateur.com webgunean jaialdiari eta auditoriumari buruzko informazio guztia egongo da eskuragarri.

IZENA EMATEKO

5. Taldeek **2023ko ekainaren 17ra** arte eman ahal izango dute izena.

6. Horretarako, ezinbestekoa izango da dokumentazio hau aurkeztea:

Batetik, izena emateko fitxa, behar bezala beteta —www.alegria-dulantzi.eus eta www.teatroamateur.com webguneetan eskura daiteke—.

Horri, hauxe erantsi beharko zaio:

- Antzezlan osoaren kopia, edozein euskarri informatikotan (DVDea, pendrivea...), edo lanaren bideo osoa Interneten ikusi ahal izateko esteka (taldeek egokiro dabilera bermatu beharko dute; izan ere, sarbide-arazoak egonez gero, eskaera zuzenean baztertuko da).
- IFKren kopia eta BEZaren Salbuespen Aitorpena, edo, bestela, ordezkariaren Zinpeko Deklarazioa, erakundeak irabazi-asmorik ez duela adierazteko.
- **2/3 argazki edo irudi, euskarri informatikoan**, egitaraua edo bestelako zabalkunde-elementuak prestatu ahal izateko.

7. Izen-emateak **posta elektronikoz BAKARRIK egingo dira**, helbide honetan:

casacultura@alegria-dulantzi.eus

Agiri guztiak Alegria-Dulantziko Udalaren esku geratuko dira, eta ez dira itzuliko.

8. Jaialdian parte hartzeko hautaketatik at geratuko dira izena emateko epea bukatzean aurrez eskaturiko informazio eta dokumentazio guztia aurkeztu ez duten taldeak.

LANEN HAUTAKETA

9. Hautaketa Batzorde batek aukeratuko ditu, aurkezten diren proposamen guztien artean, 9 antzezlan parte-hartzaileak —**tartean, haurrentzako lan bat**— . Batzordearen erabakia apelaezina izango da.

10. Hautaturiko lanek egokitzen zaien emanaldi-eguna baino lehen izan beharko dute antzeztu ahal izateko dagokion baimena (SGAErena edo egilearena, hala badagokio), ezinbestean. Behar izanez gero, antolakuntzak izapide hori erraztuko die hautatutako taldeei.
11. Hautaturiko antzezlanak aldaketarik egin gabe antzeztu beharko dira, hau da, aurrez bidalitako dokumentazioan jasotako testu eta aktore berbereri eutsita; zerbait aldatuko balitz, Antolakuntzari garaiz jakinarazi beharko zaio, bestela baliteke Epaimahaiak horregatik deskalifikatzea.
12. Hautaketa egindakoan, posta elektronikoz jakinaraziko zaie bai aukeraturiko taldeei bai aukeratu gabeei. **Hautaketa eta jakinarazpena iraila bukatu baino lehen egingo dira.**
13. Hautaturiko taldeek, dossier batean, hainbat konturi buruzko informazioa jasoko dute: jaialdiaren antolaketa eta funtzionamendua, Txema Blasco Auditoriumarekin loturiko datu teknikoak eta hara iristeko modua, eta udalerrinari buruzko informazio orokorra.
16. Partaidetza-diplomak eta sariak banatuko dira **Amaiera Ekitaldian, non udal-ordezkariek talde parte-hartzaile guztiak bilduko diren**, azaroaren 25ean, larunbatean. Talde parte-hartzaileek nahitaez joan beharko dute ekitaldi honetara, guztienez haien ordezkaririk; bestela, dirulaguntza galduko dute.
17. Dirulaguntzak eta sariak ordainduko dira, gehiezin, jaialdiaren amaiera-ekitaldia egin eta 30 eguneko epean.

LEHIAKETA-FASEARI BURUZ

18. Jaialdiko epaimahaia, Kultura Zinegotzia edo hark eskuordeturiko pertsona mahaiburua, antzerkiaren eta kulturaren esparruarekin lotura duten lagunek osatuko dute.
19. Epaia eta oinarri hauetan jaso gabeko guztiaren gaineko interpretazioa apela ezin izango dira, eta goian jasotako edozein sari banatu barik geratu ahal izango da.
20. Jaialdian izena emateak oinarri hauek onartzea dakar berarekin, bai eta oinarriotan jaso gabeko edozein konturi buruz antolakuntzak har dezakeen edozein erabaki ere.

DIRULAGUNTZEI ETA SARRIEI BURUZ

14. Jaialdian parte hartzen duten 9 taldeek **900 €-ko dirulaguntza bana jasoko dute joan-etorrietarako eta emanaldirako, bai eta partaidetza-diploma bana ere**. Emanaldien hurrenkera antolakuntzak erabakiko du.

SGAErekin loturiko kudeaketa eta ordainketa Alegria-Dulantziko Udalak hartuko ditu bere gain.

15. Sari hauek banatuko dira:

Muntaketa Hoberena

1. Saria Jose Antonio Isasi Urrez Memoriala.- Saria

2. Saria.- Saria

Aktoresa Nagusi Hoberena: Saria

Bigarren Mailako Aktoresa Hoberena: Saria

Aktore Nagusi Hoberena: Saria

Bigarren Mailako Aktore Hoberena: Saria

Ikusleen Saria: Saria

Epaimahaiaren Sari Berezia: gorago jasotako sarietan ez dagoen edozein alderdi nabarmentzeko saria, epaimahaiaren arabera (eszenografia, jantziak, etab.).

Sariak tokiko artista batek jaialdirako propio egingako obra originalak dira.

